

Enpresa Batzorde honek ezinbestekotzat jotzen du fabrikazio-nabeak egokitzeko alternatibak aztertzeke eta bilatzeko prozesu bat irekitzea, langileak jasaten ditugun tenperatura altuetatik babesteko.

Azken egun hauetan egunero 30<sup>o</sup>-tik gorako tenperaturak izan dira, baita egun batzuetan 40<sup>o</sup>-tik gorakoak ere. Nahiz eta Euskal Herrian egon, azken urteotan gero eta ohikoagoa da udaberritik udazkenera orain arte beste leku batzuetan ezagutzen genituen tenperaturak jasatea. Azken egun hauetan, Iberiar penintsula osoko tenperaturarik altuenak jasaten ari gara.

Bitartean, Giza Baliabideetako arduradun nagusiek, klimatizatutako beren bulegotik, JUSTIFIKAZIO MAILA NAHIKORIK GABEKO INBERTSIOAK eskatzea aurpegiratu digute, bi egun direla bero handikoak eta arratsaldeko erreleboan lau katu baino ez daudela uste baitute.

Komitearen ustez, ez dira onargarriak horrelako argudioak. Munduan zehar planta edo enpresa osoak erosten milaka milioi gastatzeko eragozpenik ez duten bitartean, plantillaren osasuna bermatzeko inbertsioak egitea EZ DAGO JUSTIFIKATUTA.

Guk kontrakoa pentsatzen dugu: bada garaia gure instalazio zaharkituak egungo klimaren beharretara egokitzeko. Beste enpresa batzuk horretan ari dira. CAFeko Zuzendaritzak ere egin beharko du. Izan ere, pertsonengan inbertitzea beti dago justifikatuta.

Horregatik, Zuzendaritzari exijitzen diogu **aukera onena bilatzeko prozesu bat abian jartzeko eta tailerretan inbertsioak egiteko konpromisoak hartzeko**. Gainera, prozesu hori gauzatzen den bitartean, beharrezkoa ikusten dugu oraingo protokoloa berregokitzea. Hona hemen, laburbilduta:

- Estres termikoa prebenitzeko protokoloa aktibatzea, aurreikuspenen arabera tenperaturak 28<sup>o</sup>-tik gorakoak izango direnean.
- Protokoloaren aktibazioa astebete lehenago jakinaraztea.
- Enpresako produkzio-instalazio guztietara zabaltzea protokoloan jasotako neurriak.

Gaurkoa Zuzendaritzaren jarrera salatzeko mobilizazioa da. Baina orain pilota bere teilatuan dago. Planteatutako proposamenei ematen dien erantzunaren arabera, baloratu egingo dugu eta gure helburuak lortzeko jarraitu beharreko bidea aztertuko dugu, eta, jakina, horren berri emango dugu.



Beasain, 2022-07-19

Este Comité considera indispensable abrir un proceso de análisis y búsqueda de posibles alternativas para adecuar las naves de fabricación para proteger a los y las trabajadoras de las altas temperaturas que sufrimos.

Temperaturas que estos últimos días han superado diariamente los 30° e incluso algunos días los 40°. Aunque estemos en Euskal Herria, en los últimos años cada vez es más frecuente que desde primavera hasta otoño suframos unas temperaturas que más bien conocíamos de otros lugares. Sin ir más lejos estos últimos días estamos sufriendo las temperaturas mas altas de toda la península ibérica.

Mientras, los máximos responsables de RRHH, desde su oficina climatizada nos reprochan el pedir INVERSIONES SIN NIVEL DE JUSTIFICACION ya que consideran que *son dos días de calor y solo hay cuatro gatos de tarde.*

Desde el Comité consideramos INACEPTABLES este tipo de argumentos. Cuando mientras no tienen ningún reparo en gastar miles de millones en comprar plantas o incluso empresas enteras por todo el mundo, realizar inversiones para garantizar la salud de la plantilla NO ESTA JUSTIFICADO.

Nosotros y nosotras pensamos justo lo contrario: ya va siendo hora de adecuar nuestras obsoletas instalaciones a las necesidades climáticas actuales. Otras empresas lo están haciendo. La Dirección de CAF también lo tendrá que hacer. Porque invertir en las personas siempre está justificado.

Por ello exigimos a la Dirección que abra desde ya **un proceso para la búsqueda de la mejor alternativa y adquiera compromisos de inversiones en los talleres.** Además, y mientras se lleve a cabo dicho proceso vemos necesario la readecuación del protocolo existente que resumimos en los siguientes puntos:

- Activación del protocolo para la prevención del estrés térmico cuando la previsión sea que las temperaturas vayan a superar los 28°.
- Notificar la activación del protocolo con una semana de antelación.
- Expansión de las medidas recogidas en el protocolo a todas las instalaciones productivas de la empresa.

La de hoy es una movilización de protesta a la actitud de la Dirección. Pero ahora la pelota está en su tejado. En función de la respuesta que de a las propuestas planteadas, la valoraremos y analizaremos el camino a seguir para la consecución de nuestros objetivos y obviamente informaremos de ello.



Beasain, 2022-07-19